



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Osteguna
2008-03-06**

VIURTEA 1.379.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

PEDRO GUERRA MUSIKARIA

«Egin dudan azken diskoak gogoetara asko bultzatzen du»

TOLOSA Musikari kanariarrak kontzertua eskainiko du bihar, Leidorren, Mundua Tolosan ekimenaren baitan

BAKARRA 'Vidas' izeneko bere azken diskoa eskainiko du, Euskal Herrian izango den zuzeneko bakarrean 4



Ikaztegiako liburutegian ikusgai daude gazteek plastikan eginiko lanak. N. URBIZU



HITZA

IRUDIMENA OINARRI HARTUTA SORTURIKO ARTELANAK IKUSGAI

IKAZTEGIETA Ikasleek, plastikako orduan, irudimena landuz egin dituzten lanak ikusgai daude bihar arte Ikaztegiako liburutegian s

ARRATZAIN TOLARE SAGARDOEGIA

Egunero irekita
www.agroturismoarratzain.com
info@agroturismoarratzain.com
Arratzain Zahar Baserria • Tel. 943-36 66 63
20170 USURBIL

MARTXOAK 7 OSTRALA independentzia eguna *musika, kultura*
7etan Trianguloan **Tolosan** Martxoak 9an **PLANTO** egin

E | **Elkarrizketa**

ITXASO ETXEBESTE | Bihotz Bakartien Klubeko baxu jotzailea

Musika » Bihotz Bakartien Klubak 'Katamalo' izenburupean argitaratu duen bere lehen diskoa aurkeztuko du etzi Bonberenean.

ESTI EZEIZA

Bihotz Bakartien Kluba duela sei urte sortu bazen ere, orain kaleratu du bere lehen diskoa: *Katamalo*. Itsaso Etxebeste baxu jotzaileak (Belauntza, 1981) katamaloa, kareta kendu du eta proiektu berri honen inguruan mintzatu da. Bihar Bonberenean entzuteko aukera izango da, 22:00etatik aurrera.

Nondik sortu zen Bihotz Bakartien Kluba?

Larrabetzu inguruan sortu zen duela urte batzuk, 2001 inguruan. Sarrionandiaren poesia batzuk errezitatzeko hasi ziren. Baina talde hau, ez dute beti pertsona berdinek osatu, hau da, ez da talde finko bat, aldatuz joaten da. Ez da talde itxi bat. Gaur gu gaude, eta agian, datorren urtean beste batzuk egongo dira. Baina Bihotz Bakartien Klubak beti jarraituko du existitzen. Talde honen abiapuntua literatura da.

'Katamalo' diskoak Gotzon Barandiaranen izen bereko liburuarekin lotura zuzena du.

Diskoan zazpi kanta daude, eta kantetako olerki hauek liburuan daude.

Dena den, bere poesiak moldatu egin dituzue.

Gotzon Barandiaranek banatu zituen poesia batzuk, berak zuen ideiarekin arabera. Izan ere, bakoitzaren konposatzeko modua ezberdina da. Esaterako, Nereak pianoa jotzen du, eta eman zion poesiaren abestia konposatzeko instrumentu hau zela egokiena uste zuen. Bestalde, ahapaldi eta errepikak egiteko errepikatu behar izan ditugu esaldiak bi aldiz, behin beharrez, baina horrelako aldaketa txikiak. Moldatu ditugu, musika kutsua izan dezaten letrak. Baina liburuan dauden letrak originalak dira, hasieran idatzi bezala daude.

Talde berezia zaretela esan daiteke, ez dituzue ohiko instrumentuak jotzen.

Bai, alde batetik, formatoagatik eta bestetik, akordeoi eta biolin-jotzaile bat izatea taldean ez da ohikoena. Agian, baxua, piano eta gitarra bai gainontzeko taldeetan ere aurki daitezke, baina bestea ez. Gainera, aldi berean jotzen direnak, instrumentu asko dira, eta zaila da kantuak hauetara guztietara egokitzea. Bestalde, abesti bakoitzean instrumentu bat da protagonista, besteek baino garrantzia gehiago hartzen baitu. Horrenbeste instrumentu izateak, kantuak



NEREA URBIZU

«Gurea, jendea poesiara hurbiltzeko modu bat bezala uler daiteke»

bata bestearen alboan, ezberdina egiteko aukera ematen du. Esaterako, kantu batean nabarmen-tzen da biolina, hurrengoan berriz, toki gehiago du baxuak, eta horrelakoak egiteko aukera ematen du.

Orain gutxi elkartu bazarete ere, aurretik esperientzia handia duzuen musikariak zarete Bihotz Bakartien Klubeko kideak. Hala ere, indibiduo bezala hartzea nahi duzuela behin baino gehiagotan aipatu duzue.

Hori da, *Katamalo Katamalo* da. *Katamalo* Bihotz Bakartien Klubaren proiektua da, disko-liburua kasu honetan eta berdin du nondik gatozen. Guretzat *Katamalo* ikuskizuna ez da gure zerrendan dagoen lehen gauza. Beste gauza batzuk ere bai baititugu honez gain. Baina gu, Itsaso Etxebeste, Nerea Urbizu, Gorka Urbizu, Alex Arregi, Aintzina Lekue, Gotzon Barandiaran eta Gorka Mugarza gara, eta ez Berri Txarrak-eko Gorka,

Itzalak-eko Nerea, edo dena delako. Hori diogu, batez ere, ez due-lako zerikusirik lehenagotik egiten ditugun gauzekin. Zer bait inde-

Gure emanaldietan eskaintzeko duguna beti antzekoa da, baina ez da inoiz errepikatzen

pendientea da. Ez da laborategiko esperimendu bat izan. Denoi interesatzen zitzaigun proiektu hau eta parte hartu nahi genuen. Azken batean, musikariak gara, eta gauza diferentek egitea gustatzen zaigu.

Proiektu hau, Euskal Herrian aitzindari dela esango al zenukete?

Poesia berriz indartzen ari dela esango nuke. Egiten dira errezitaldiak bestela ere. Hala ere, egia da nireustez, Gorka Urbizu hor dagoela esateak nolabaiteko bultzada

eman diola poesia errezitaldi hauei, baina ez gara horretaz baliatzen, ia-ia kontrako! Dena den, egiten ditugun gauzek bata bestearekin ez dute loturarik. Hala ere, egia da jendearen ikusmina pizten duela, horrelako pertsonaia bat poesia errezitaldi batean ikusteak. **Zer moduzko esperientzia ari da izaten?**

Niri pertsonalki, Gotzon Barandiaranen poesiak asko gustatzen zaizkit, eta baita abestiak ere. Bestalde, giro oso ona dago taldean eta, gustura egoten naiz emanaldietan. Horrez gain, zuzenekoetan ez dakizu zergertatu behar den. Eskaintzekoa beti antzekoa da, baina ez da inoiz errepikatzen. Horregatik, emanaldietan, jotzen aritzen bagara ere, aldi berean, entzule ere bagara.

Nolakoak dira zuen emanaldiak?

Normalean, aurkezpen moduko bat egiten du Gotzonek, olerki batekin. Gero, musika hasten da oler-

ki baten azpian. Ondoren, olerkiak eta kantuak tartekatzen joaten gara. Amaitzeko berriz, hasierako doinu hori gogorarazten duen kantu bat jotzen dugu. Gainera, lau pertsonak abesten dutenez, abestiak txandakatzeko saiatzen gara. Tontor asko dituen emanaldia dela esango nuke. Bestetik, asko nabaritzen da estiloan, norik egin

Ez da laborategiko esperimendu bat izan; denoi interesatzen zitzaigun proiektu hau

duen kantu bat-edo bestea. Ordu eta hamar minutu inguru irauten du emanaldiak eta 12 bat kantu interpretatzen ditugu. Kantuetako bat, esaterako, mexikar tradizioa da, beste lau edo bost berriz, Gorka Urbizuk egin ditu, Alexek hiru, eta beste bat Nereak egin du. Hala, letrak esaten dutenaren arabera eta konposatu duen pertsona kontuan hartuz, abestien estiloa aldatzen da. Jendea literaturara, poesiara hurbiltzeko modu bat bezala uler daiteke gurea. Niretzat behintzat, askoz ere erakargarriagoa baita poesia norbaiten ahoan entzunda.

Zeren inguruan hitz egiten duzue zuen abestietan?

Bakoitzak berak nahi dituen moduan hartzen ditu, bere errealitateari lotzen dizkio. Katamalorekin lotuta badaude ere, letrak, bakoitzak bere eremura eraman ditzake. Bestalde, diskoko liburuxkan, gure emanaldietan jotzen dugun *Katamalo* kantua bederatzi koplak sartu ditugu. Hauek Maialen Lujanbiok idatzi zituen mexikar tradizioa kantu baten moldaketarako, baina diskoan ez dago entzungai. Bestalde, letra guztiak, errealitateko bizipenetan oinarrituta daude. Gotzonek berak esaten duen bezala, ez zaio ezagutzen ez duenaren inguruan hitz egitea gustatzen. Berak zer bait kontatzen duenean, hurbiletik egiten du.

Emanaldietan 12 kantu jotzen badituzue ere, diskoan zazpi bakarrik daude.

Hasieratik nahiko garbi zegoen disko laburra izan behar zuela. Guk *Katamalo* proiektua ez genuen disko bat ateratzeko helburuarekin egin. Baina ekaina aldera, Gotzonek kantu hauetan sinesten zuen, eta liburuak bakarrik argitaratu beharrez, diskoak kaleratzeko asmoa proposatu zuen. Horregatik, erabaki genuen, egin zitekeela, baina 12 kanturekin ez. Hasteko, taldekideek, Bihotz Bakartien Klubaz gain, gauza gehiago zitzuztelako egiteko, eta denbora behar delako. Eta bestetik, azken finean, liburuak delako protagonista, eta diskoak bere osagarri bat delako. Horregatik, uste dugu, zazpi kantu badira ere, ongi aukeratuak direla, eta ez dagoela bat bera ere soberan. Xumea baina duina da diskoa.

E Elkarrizketa

PEDRO GUERRA › Musikaria

«Gogoetara asko bultzatzen duen diskoa da azken hau»

Musika › Pedro Guerra musikari kanariarrak 'Vidas' bezala izendatu duen bere azken diskoa aurkeztuko du bihar gauean, Leidor antzokian.

ESTI EZEIZA

Vidas izenarekin bataiatu du Pedro Guerrak (Güímar, Kanariar Uharteak, 1966) bere azken lana. Bihar aurkeztuko du Tolosan, Mundua Tolosan ekimenaren baitan joko baitu. Kontzertua Leidor antzokian izango da, 20:30ean.

Nolakoa izango da bihar eskainiko duzun kontzertua?

Hiru musikariz osatutako taldea daukat: piano akustikoa, bateria eta baxu elektrikoa. Hauekin batera, nik gitarra jotzen dut. Emanaldian *Vidas* diskoko kantuak joko ditugu, eta ondoren, aurretiko lanetako abestietatik errepasobateginog dugu.

Kontzertuan, zurekin lan egin duen musikariak bakarrik izango al dira?

Bai, disko hau nirekin egin dute, baina gainera, urte asko daramatzagu elkarrekin lanean.

Zer moduzko harrera ari da izaten oraingoz diskoa?

Duela hilabete eta erdi argitaratu zen, eta kontzertu bat eskaini dugu oraingoz. Dena den, oso ongi egon zen Murtziako emanaldia. Erabat bete zen antzokia, eta oso gustura. Hala ere, balorazio handiak egiteko goizegi dela esan daiteke.

Euskal Herrian eskainiko duzun kontzertu bakarra izango al da Tolosakoa?

Ez, oraindik zehaztu gabe dago nondik norakoa izango den bira, osatzen ari dela esan daiteke. Honenbestez, urtea amaitzerako itzuliko gara berriro Euskal Herriara. Momentuz, kontzertu hau bakarrik dago baieztatuta, baina gehiago ere eskainiko ditugu.

Zergatik izendatu duzu 'Vidas' bezala zure diskoa?

Kantu guztien inguruan, bueltaka bizitza asko daudelako. Bizitzen

diskoa da, eta honen inguruan mintzatzen diren kantuez osatuta dago argitalpena.

Zure diskoen artean, hausnartze- ra gehien bultzatzen zaituena dela diote, zuk ere hala uste al duzu?

Ez dakit hausnarketara gehien bultzatzen duena hau den edo ez, baina bai gogoetara asko bultzatzen duela. Honez gain, oso disko sakona, barne-barnekoa dela esango nuke. Baina azken batean, nire disko guztiak dira horrela.

Epe honetan aita izateak eraginik izan al du diskoan?

Aita izateak denean eragiten du. Dena den, honez gain beste alaba helduago bat ere badugu, eta aspalditik dakigu zer den guraso izatea. Hala ere, haur txiki batekin dena ezberdina da, eta zenbait gauza bizitzera itzultzen zara. Horregatik, eragina duen eta nahiko erabakigarria den zerbait da.

Grabatzeko garaian, instrumentu guztiak aldi berean joaz egin duzue. Zergatik horrela?

Honek freskotasuna, berezkotasuna eta naturaltasuna eman dio. Musika jotzeko egina dago, zuzenean jotzeko eta hau da musika mugitzen duen logika. Baina, arrazoiezberdinengatik, egun kantuak zatika grabatu daitezke, eta gehienetan horrela egiten da. Baina nik lehengo ohitura hori berreskuratu nahi nuen, musikari guztiak zuzenean, eta elkarrekin jo zezaten. Hala, zuzenekoaren elkarreagin honek ekarpen handia egiten dio kantuari eta asko irabazten du azken doinuak.

Azken disko honetan ez duzu kolaboraziorik izan.

Ez, disko hau nire etxean, oso lasai egin dut, eta horregatik ez dut kolaboraziorik izan. Baina ez dago



HITZA

arrazoiz berezirik. Batzuetan laguntzaileak izaten dituzu eta beste batzuetan ez. Disko honetan lan egiteko garaian, modu personala gero eta bakartiago batean egin dut, eta ez zen kolaboratzaileekin egiteko modua.

Zure abestiak kritika soziala egiteko erabiltzen dituzu maiz, musika horretarako tresna garrantzitsua dela esango al zenuke?

Musika hor dagoen gauza bat da, eta hau ere erabili daiteke. Azken batean komunikatzeko bide bat da musika, eta honekin mezuak zabaltu daitezke edo jendearen bihotzetara iritsi.

Kantautore gisa, nola ikusten duzu gaur egun, musikaren egoera?

Urte hauetan, mundu horretatik at

egon naiz, eta ez dakit oso ondo zein deien egungo egoera. Dena den, esan dezaket, egoera orokorra ez dela oso ona. Gero eta apustu gutxiago egiten da jende berriarengatik eta gure musika erakusteko gero eta toki gutxiago dago. Egoera hobek bizitu izan ditugu. Hala ere, trantsizio garaian gaude la esan daiteke. Zerbait berria dago hor, eta orain bidean gaude.

Egoera honen arrazoietako bat Internet izan al daiteke?

Bai, eragin handia du. Jendeak Internet bidez jaisten ditu kantuak eta horretaz bizi garen musikariengan ondorio handiak ditu, zailtasunak ditugu. Industria guztian du eragina, eta ez dakit zein den irtenbidea, baina aurkitu beharra daukagu.

L Laburrak

Mobilizazio eguna deitu du gaurko ezker abertzaleak

POLITIKA ● Mobilizazio eguna bezala izendatu dute gaurkoa ezker abertzalekoek. Igandeko hauteskundeetan Euskal herritarrei «planto» egiteko aukera eskaini nahi diete. Honela, *Euskal Herriak Independentzia, igandean abstentzioa* lelopean, gaur kalera atera eta antolaturiko ekintzetan parte hartzeko deia luzatzen dute. Tolosako kasuan, 20:00etan Triangulora joatera gonbidatzen dituzte herritarrak. Aiztondo bailarari dagokionez, Villabonako plazan, gaur berean egingo dute mobilizazioa. Azkenik, Amezketako plazan, 22:00etan, elkarretaratzea egingo dute, eta ondoren, bideo emanaldia udaletxean.

Udal Plenoaren Ohiko Bilkura izango da gaur

ANOETA ● Gaur 19:30ean, Udal Plenoaren Ohiko Bilkura izango da. Bertan aztertuko diren gaiak ondorengoak dira: Alkatezaren ebazpenen berri ematea, 001 zenbakitik 135 zenbakira, biak barne. Baita aztertuko da, etxetzeko laguntza zerbitzuaren finantzazketa arautzen duen ordenantza aldaketa, hasierako onarpena. Azkenik, galde-erreguak.

Matrikulazio epea atzeratu dute Samaniego-Orixen

TOLOSA ● Samaniego-Orixe ikastetxeek kaleratu duten matrikulazio kanpainaren propagandan oker bat dagoela jakinarazi dute. Hezkuntza Sailak azken momentuan epea aldatu duelako. Epe berria: Martxoaren 31tik apirilaren 11ra bitartekoa. Hala ere, baten bat epeaz kanpo gelditu den astean, martxoaren 10etik 14ra, hurbiltzen bada hartatuko zaió.

Kotxe karabana eta herri afaria izango dira bihar

POLITIKA ● Aiztondo bailarako ezker abertzaleak deituta kotxe karabana egingo dute bihar, 19:30ean, Leibititik abiatuta. Bestalde, hauteskunde kanpainaren amaiera dela eta, Herri afaria izango da, 20:30ean. Txartelak salgai daude Kultur Etxean eta Iratzarren.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri
eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldecohitzza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Irudimena oinarritzat, artelanak

Ikaztegieta » Irudimena landu dute ikasleek plastikan; bertan egindako lanak bihar arte daude ikusgai, liburutegian.

NEREA URBIZU

Ikaztegieta eskolako ikasleen plastikan egindako lanak ikusgai daude bihar arte, herriko liburutegian, 16:00etatik 18:30era bitarte. Irudimena leku egina diote Naiara Delgadoren laguntzaz, bera izan baita plastikako orduan berarekin egon den irakaslea. Berez, begirale ikastarotako praktikak egiteko baliatu du Ikaztegieta esperientzia Tolosan bizi den andoaindar honek. Irudimena izan da 5 eta 12 urte bitarteko ikasle hauen ardatza, sormena. Naiara Delgadok esan bezala, «baliorik ez duten gauze-kin, birziklatutako materialekin pertsonai bat asmatzea eskatu nien lehenik. Ondoren, pertsonai honen mundua, edo ingurua eta horrela egin dute». Etxean zuten materiala ikus daiteke artelan hauetan: kartoia, plastilina, oihal zatiak, txotxak...

Txikienekin ezin izan zuten berak nahi bezala landu, baina oso interesgarria izan da emaitza: «Denei material berdina eman nien, kortxoa, hoditxo bat, yogurt pote bat eta forma desberdin asko atera dira. Helduenenak landuago daude, manipulazio aldetik prestatutago daudelako, noski».

Naiara Delgadok, bere egitasmo honen baitan zegoen lehen pausoa proiektu moduko bat izan da, hau



Askotariko lanak daude ikusgai liburutegian. Eskuinean, Naiara Delgado erakusketa ikusten. N. URBIZU



Baliorik ez duten gauze-kin, birziklatutako materialekin pertsonai bat asmatu behar zuten gaztetxoek. N. URBIZU

da, ikasle bakoitzak bere koadernotxoa zeukan, lehen orriari datuak jarrita, eta ondoren bakoitzak bere buruari egindako erretratua. Gero, zehazki egin behar zuten asmatutako pertsonai horren lehen pausok islatu zituzten: materiala, deskribapena, sortu aurretik beraien buruan zuten pertsonai honen itxura irudikatzea arkitektoak bailiran, beraz, ibili dira ikasleak.

Irakurzaletasuna bultzatzen

Aurreko asteartean, Ikaztegieta bost gurasok, eskolan urtero egiten den irakurketa saio berezian parte hartu nahi izan zuten. Euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta errumanieraz irakurri zuten, bakoitzak aukeratutako hizkuntzan, eta entzuten, berriz, ikasle eta guraso bartzuk. Auten, Joxe Mari Uria, Amaia Ramiro, Adriana Florea, Lourdes Gurrutxaga eta Miren Orbegoza izan dira irakurleak. Ikasleak adi izan dira ixtorioak entzuten. Amaia Ramirok herensuge bati buruzko ipuin bat kontatu zuen euskaraz, eta ipuin hau entzun nahi izan zutenek sorpresa bikoitza izan zuten, jostailuzko herensuge txo bat eta pastela jan zutelako bertan.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Tolosa erdigunean 2 logelako etxea salgai. Egoera onean, oso merkea. Telefono zenbakia: 665 70 86 35.



Hainbat gurasok irakurketa saio berezian hartu zuten parte. N. URBIZU

martxoaren 12an



herri informazioaren
leihoa

zabaltzera goaz

G Gutunak**Ibarrako udaletxeari erantzunez**

Egun hauetan alderdi politikoz gurtzeki nire botua eskatzen didate. Aldiz, niri dagokidan gai bat gertutik sentitzean, nire iritzia inori inporta ez zaionaren sentsazioa daukat, ezta botua eman diodanari ere. Ordezkaririk horiek hain kezkatuak daude gure ongizateaz, baina gutaz ahazten dira.

Gure seme alabak Ibarrako ikastolara bidaltzeko aukera egin dugunok asko eta asko gara, aukera politikoki anitzekoak. Ikastola pribatua bai, baina bakarria, besterik ez baitago.

Horrela ikastetxe publikoaren alde egin nahi duen orok, beste herri batetara lekualdatu beharra

dauka, honek dakarren guztiarekin. Zenbaitentzat ikastola enpresa pribatua den arren, niretzat herrian bertan dagoen hezkuntza aukera da, eta horrexegatik eskatu nahi nioke udalari berea balitz bezala sentitu eta haren alde lan egin dezala.

Ez dut zalantzan jartzen haurtzandegia Partzuergoan jartzearen erabakia den onunarako izango delakoaren borondatez egin dela, baina ez ahaztu: ordezkatzen duen alderdiaren aukera inoiz ezin daiteke izan bozkatu zaituztegun hiritarren ahotsa baino garrantzitsuagoa.

Ez nago inolaz ere Udaletxearen aurka, nire herriko ikastolaren alde baizik.

Txaro Fernandez Gonzalo. Ibarra.

L Laburrak**Xebas-en omenaldia etzi 11:30etik aurrera**

IBARRA • Xebas Goikoetxearen XXXI. urtemuga etzi ospatuko dute omenaldi batekin. 1977. urtean ustez Guardia Zibilak erahil zuen ibartarrari lore eskaintza egingo diote hilerrian, 11:30ean. Ondoren, Aranera jaitsiko dira sende, lagun eta herritarrak, 12:00etan omenaldia egiteko.

EHNA tramitatzeko aukera etzi 10:00etatik aurrera

IBARRA • EHNA tramitatzeko aukera egongo da etzi udaletxean 10:00etatik 13:00etara. 3 argazki eta 15 euro eraman behar dira argiria lortzeko. Ibartarrak ez direnek errolda agiria eraman beharko dute eta EHNA egin baina galduta duenak, argazkiak eta 7 euro. Eskaera egin baina iritsi ez zaionak bertan jasoko ditu argibideak.

Emakumearen egunaren inguruko afaria bihar

IRURA • Emakumearen eguna delata, Udalak bihar prestatu ditu ekitaldiak. Zaharren Biltokian afaria egingo dute emakumeek, ondoren animazioa egongo da. Txartela erosteko epea gaur amaituko da.

Gurasoei zuzendutako hitzaldia bihar 16:15ean

IBARRA • Lizartzako Gizarte Zerbitzuek gurasoen topaketak antolatu dituzte. Bihar haurren agresibitatearen inguruko hitzaldia egongo da 16:15ean Kultur Gunean. Saio hauek dinamikoak izango dira eta 0-12 urte bitarteko haurrak dituzten gurasoei zuzendua egongo da.

Mendia eta upategia martxoaren 16ean

IBARRA • Bai Euskal Herriarik eta Haitzetan Raju Mendi taldeak mendiri irteera antolatu dute martxoaren 16ean. Hiru orduko ibilaldiaz gain, upategi bat ere gertutik ezagutuko dute. Autobusean egingo dute joan-etorria eta izena eman nahi duenak 652 71 58 00 telefono zenbakira deitu beharko du.

Ibarra FSK 1-5 galdu zuen iragan asteburuan

IBARRA • Ibarra FSK 1-5 galdu zuen Pajarin taldearen aurka azken jardunaldia. Etxean jokatu arren, kanpo taldea markagailuan eta jokoan nagusi izan zen, ondorioz, ibartarrak 6. posturaino jaitsi dira.

Euskal Herriko IV. Mus Txapelketa eskualdeetan

Gizarte » Lehen fasea herri mailan jokatzeko ari da, ondoren zazpi lurraldeetako ordezkariak jokatu dute finala.

ASIER IMAZ

Iparra-Hegoak antolatuta bi eskualdeetako hainbat herritan Euskal Herriko IV. Mus Txapelketa jokatzeko ari da. Bihar besteak beste Ibarra eta Alegian egongo dira kanporaketak.

Txapelketaren lehen fasea herrietan erabakitzen da lehenik.

Herrietako dematik lehen biak probintzioko fasera igarotzen dira, Ibarra eta Alegiako kasuan, irabazleak eta bigarren sailkatuak Gipuzkoako Txapelketara joango dira. Ondoren lurralde bakoitzeko lehenak, 7 lurraldeetako ordezkariak aurka lehiatuko dira finalean, hau da, Gipuzkoa, Nafarroa, Bizkaia, Araba, Lapurdi, Behe Nafarroa eta Xiberoako ordezkariak iritsiko dira final handira. Finala apirilaren 5ean jokatu da Seguran (Gipuzkoa), 16:00etan Elorri Elkartearen eta Seguran ospatuko den Iparra-Hegoa Aste Kulturalaren barnean.

Ibarra eta Alegia

Sendi Ekintza Elkartearen eta Hilario Tabernan jokatu da bihar txapelketaren lehen fasea eskualdeko bi herri hauetan.

Ibarran 22:00etan zabalduko da izena emateko zerrenda eta jokuaren 22:30ean hasiko dira herritarrak. Alegian 22:30ean elkartuko dira Hilario Tabernan, izena eman eta jokuan hasteko.

Euskal Herriko IV. Mus Txapelketan parte hartzeko bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu. Azken finalaren irabazleak 3.000 euroko saria jasoko du, bigarrenak berriz 1.000 euro.



Ibarran Sendi Ekintza elkartearen bilduko dira bihar 22:00etan herritarrak musean egiteko asmoz. IÑIGO TERRADILLOS

Eskualdeko hiru erremontista Patxaran Baines II.n Masterrean

Erremontea » Binakako Txapelketan 8 bikotek hartuko dute parte eta etzi hasi eta apirilaren 12an amaituko da.

A. IMAZ

Erremonteko Binakako Txapelketa edo *Patxaran Baines II. Masterrean* aurkeztu dute Iruñean (Nafarroa). Aurkezpenaren eskualdeko 3 erremontista aurkitzen ziren. 2007ko txapeladunak elkarrekin jarraituko dute. Zeberio II. Agirrezabala bikotea osatuz. Altuna Iak Eizagirrerekin jokatu du eta Altuna II.ak San Miguel gaztearekin.

Finala apirilaren 12an

Txapelketa asteburu honetan hasiko da, etzi Hernaniko (Gipuzkoa) Galarretan jokatuko dira lehen partidak eta igandean Uharterko Euskal Jai Berrin.



Binakako Erremonte Txapelketaren aurkezpenaren 8 bikoteak. MIKEL RODRIGUEZ

Txapelketaren finala berriz, apirilaren 12an jokatuko da. 16 erremontista egongo dira txapelaren borrokan, 8 bikotetan antolatuta. Mementoko erremontista garrantzitsuenak txapelketan parte hartuko dute, Zeberio II.az gain, Ezkurra eta Lizaso lehiaren egongo baitira.

Frontoi motza eta luzea

Txapelketaren lehen zatia partidua bakarrera jokatu da. Final erdiak eta finala berriz bipartidutara, lehena frontoi luzean eta bigarrena motzean. Norvehiagokak 40 tantura jokatuko dira eta bi partida jokatzeko dituzten kanporaketetan tantuak hartuko dira kontutan.

Urola Kostako HITZAK KAZETARIA BEHAR DU

ezaugarriak:

- Kazetaritzan edo Euskal Filologian lizentziatutako Urola Kostako biztanleak.

Curriculum-a bidali helbide honetara:
Zelai Ondo 23, behea • 20800 ZARAUTZ • Telefonoa: 943 89 00 17
urolakosta@urola-kostakohitza.info

E Elkarrizketa

UNAI ELIZASU › Gai-jartzailea

Internet » Unai Elizasu gai-jartzaileak 'gaijartzailea.com' bloga jarri du abian, urteetan plazetan eta etxean bildutako esperientzia sareratzeko asmoz.

«Urteetan bildutako lana sareratu nahi izan dut egin dudan blogean»

NAIARA GARZIA

Unai Elizasuk (Leitza, 1980) *gaijartzailea.com* bloga jarri du martxan urteetan zehar gai-jartzaile bezala jasotako esperientzia bertan islatzeko, hainbat gai-jartzaile-entzatzat eta bertsolaritza mundua gustuko dutenentzat lagungarria izanen delakoan.

Nola bururatu zitzaizun blog hau egitea?

Idea aspalditik nuen buruan. Blogen mundua ezagutzen hasi eta ohar-tu nintzen nire ideiek ondo enkajatzeko zutela halako batean.

Ze helbururekin sortu zenuen bloga?

Nire saioen jarraipena eta saioetako nire gaiak jartzeaz gain, gure munduaren inguruan dagoenari lekua eman nahi nion. Bestetik, jende anonimo dezenteren deiak jaso izan ditut, saioak nola antolatuta ez dakitenak, gomendio eske... horri erantzuteko tresna bat ere bada bloga. Nondik hasi ez dakienak, gomendio sorta bat du bertan. E-mail bidez edo txat bidez erantzunen dira galdera horiek denak.

Oinarritzko galderei erantzuna ematen diezu, beraz?

Batik bat, jende askoren galderak izan direlako horiek. Zenbat bertsosaldi ditu jaialdi batek? Zenbat ofizio? Bakarkako bi ariketa jarraian jartzea ondo dago? Galdera asko daude, baina ez dago inon erantzunik. Nik blogean erantzuten ditut, eta nire iritziak dira. Onak edo txarrak ez dakit baina nireak dira, eta nik horiekin funtzionatzen dut plazetan.

Txapelketetan jarritako gaiak ere bildu dituzu.

Bai, baita bertso-eskolentzako baliagarria izan daitekeen gai sorta luze zabal bat. Eta beste gai-jartzaileen saioetako gaietarako lekua ere izanen da. Eztabaidarako lekua izanen du ere, nik nire iritziak jartzen ditut bertan eta iritzi oro da eztabaidagarria.

Duela egun gutxi jarri duzu martxan, ezta?

Bai, baina urteetan pilatutako lana eta esperientzia gordea nuen etxean, karpeta batean. Lan horren sareratzeko, txukuntza eta garbitze prozesu baten ondorio izanda. Urteetan bildutako lana sareratu nahi izan dut egin dudan blogean.

Gai-jartzailearen irudiak emez duen errekonozimendua izan al du?

Ez da errekonozimendu kontua. Gai-jartzailea oholtza gaineko atzeko bazterreko aulkian eser-

tzen den elementua da. Oholtzako bertso jardunari buruz gauza asko idatzi da, liburuetan, Interneten... baina oholtza gaineko gai-jartzaileen lanaren inguruan ez dago gauza askorik idatzita. Ez da errekonozimendugatik, dagoen lan baten inguruan bildutako esperientziak eta gomendioak azalera-tzea, sareratzeko du helburu.

Zure bloga hutsune bat betetzera dator?

Bertsolaria izateko, lana egiteaz gain gaitasun batzuk izan behar dira, lana eginda bakarrik lortzen ez direnak. Gaiak jartzeko berriz

lana besterik ez da egin behar, komunikatzeko gaitasuna ere izan behar da baina etxeko lan handi bat eskatzen du. Kontua da, lan hori ez dagoela markatua, norberak egiten duena dela eta egin arte ez dela jakiten lana ondo edo gaizki dagoen. Blog honetan, oholtzaratu aurreko lan horren berri azaltzen dut, behintzat oholtzan zer egin behar ez den adierazi. Blog honetan jarritako gomendioak jarraituta ez du esan nahi, inondik inora ere, saio onik aterako denik.

Zuk, gai-jartzaile bezala, zegai dituzte gustukoak?

Gai-jartzaile bakoitzak du bere lan egiteko modua. Nik nirea dut, eta plazetan dezente ibili ondoren, zenbait gauza ikasi ditut. Gauza horiek ez dute sekretu izan behar, askorentzako lagungarri izan daitezkeela uste baitut eta horregatik daude denen eskura. Nire gaiak, bertsolari, plaza, egoera, egun eta ordu bakoitzaren arabera moldatzen dira. Egunerokotasuna izan ohi da sarri nire sorkuntza iturri. Egunkarietako berriak ez dira nire gaien oinarri, eta ohikotik edo edozeinek eginen lukeen hortatik ihesi ibiltzen naiz.

Txapelketetan taldeka gaiak jartzeko orduan ados jartzea erraza egiten al zaizue?

Txapelketa beste mundu bat izanda ere, oinarrian etxean egiten den lan hori dago. Taldean, etxean egindako lan horren gainean egiten da lan. Eta denen adostasuna lortu behar da. Nik adibidez, txapelketako bilera batetik konbenzitzen ez nauden gai bat jartzen ez dut sekula utzi. Saiora ez nintzateke lasai joanen. Edo gai hori hobetu edo hobea ekartzen dut. Saio batera, jarritako gaiak onak direla eta gai horietan sinistuta joaten naiz beti. Gero, ez du zertan beti ondo irten behar, ordea.

«Oholtza gaineko gai-jartzaileen lanaren inguruan ez dago gauza askorik idatzita»

«Interneteko mundua interesgarria da eta bertsolaritzak lekua baduela iruditzen zait»

Zein publikori zuzendua dago?

Gai-jartzaileentzat, baina batik bat oso plaza gutxi egiten dituzten haientzako. Azken batean, nik beti uste izan dut pertsonak badakiela noiz den gai edo ez bertsotan egiteko. Bertso eskolan ikusten da nor den plazara igotzeko gai eta nor ez. Baina nola daki pertsona batek kapaza dela gaiak jartzeko? Zein irizpidetan oinarritzen da oholtzara igotzeko gai badela? Garrantzia handia duen lana da.

Bloga zure txoko pertsonal bezala planteatu duzu, baina aldi berean ekarpeni ere atea ireki diezu, ez?

Nire gai-jartzailetza ulertzeko modua azaltzen dut blogean, nire jarrera gai-jartzailetzaren aurrean, bertsolaritza, bertsolari, herri, unearren aurrean... eta nirea den heinean, eztabaidagarria izanen da. Ekarpenek azken batean, norbere jarrera sendotu edo janzteko balio dute.

Jendearen aldetik ze erantzun izatea espero duzu?

Ez dut ezer berezirik espero. Lan baten berri eman nahi nuen blog honetan, ezkutuan dagoen lan baten berri, inolako asmorik gabe. Bestetik, etxean pilatuta nituen gai guzti horiei irteera bat eman nahi nien, txapelketako gaiak ere sarean behar zutela uste nuen eta norbaitentzako baliagarria izan zitekeela uste nuen.

Internet, beraz, bertsolaritzarentzat ere hagitz baliagarria izan daiteke.

Guta Guturrak taldeko partaideek, Unai Iturriagak eta Igor Elortzak ere apustua egin zuten blog batekin eta oso ongi dihoakie. *Bertsoa.com* webgunea ere irazuk sortu zuen. Interneteko mundua interesgarria da eta bertsolaritzak bertan lekua baduela iruditzen zait.



N. GARZIA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 032. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak
S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai
Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Hitzaldia

■ **Tolosa.** Berdintasun sailak antolatuta, *Ba al dago berdintasunik gizon eta emakumeen artean?* hitzaldia, Josebe Iturriozekin HHlko egoitzan, 16:00etan.

Deialdiak

- **Tolosa.** Mobilizazio eguna Triangulon, 20:00etan, ezker abertzaleak deituta.
- **Tolosa.** Carlos Garciak kartografia ikastaroa eskeiniko du gaztele-raz. Gaur eta bihar 19:30etik 21:00etara. Igandean 09:00etatik 13:00etara Urkizu-Mendikute ingurura paseoa.
- **Alkiza.** Idoia Sanchez ipuin kontalariak saioa emango du Alkizako liburutegian 17:00etan.
- **Tolosa.** *Esikia gaur egun* mahain- guria: Isabel Dumall (iraupen es- kia eta triatloi zuria), Joseba Ormazabal (mendiko esikia), Mikel Troitiño (snow board) eta Josu Iz- tueta (eski zeharkaldiak). Udal ba- tzar aretoan 20:00etan, eskiaren 100. urtemugan.

Kultur Asteak

■ **Anoeta.** Idoia Sanchezen ipuin kontaketa liburutegian 18:00etan, Kultur Astearen baitan.

Zinema

■ **Tolosa.** *Giulietta de los espiritus* filma emango dute zine-forume- an, Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 10. 943 676013.
- **Arribe.** Garmendia, A Kale Na- gusia, 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.



Musikari gazteen trebezia entzungai

ANOETA • Kultur Astearen baitan, Loatzo musika eskolako Irurako eta Anoetako ikasleek beraien trebezia erakutsi zuten udaletxeko areto na- gusian. Hala, zazpi piano-jotzaile, bi eskusoinu-jotzaile eta bi biolentxelo- jotzaile aritu ziren. Piano-jotzaileetako batek, Xabat Urkola anoetarrak,

etzi Victoria Eugenia antzokian egingo den Donostia Hiria Nazioarteko Piano Lehiaketan parte hartuko du. Bestalde, Kultur Astearen baitan, gaur, 18:00etan, Idoia Sanchez ipuin kontalariak, Galtzaundiren eskutik, 4-7 urte bitartekoentzat emanaldia eskainiko du liburutegian. I. GARCIA

A Agurrak



Urte askoan!

Asier Lopetedi.
Zorionak denon partetik eta egun on bat pasa ezazula.

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

txokoa **h**

kontzerturako 2 sarrera pare zozketatuak

Irabazleak:

- Ramoni Otamendi (Tolosa)
- Ernesto Lasa (Irura)

Ostirala, martxoak 7 ◦ 20:30ean
Tolosako Leidorren

Pedro
Guerra

